

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1995eko urria 6z



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

**KONTZERTUKO GIROA
BIKAINA IZAN ZEN**

Maderas Ballastegui, s.a.

MENDI UZTIKETA ETA ZERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.



Elgeta kanpotik

Elgetatik lan kontuak direla eta Bizkai aldera joan nintzela 10 urte betetzen diren honetan, kanpoan bizi baina herriari lotuta sentitzen naizenez, Elgeta Erandio aldetik nola ikusten dudana aipatzea izango da gaurko nire aportazioa.

Batez ere, gazteen lana nabarmenduko nuke, ez bakarrik aldizkari hau ateratzeko egiten duten esfortzuagatik, baizik eta herrian sortzen duten giroagatik ikastaroak antolatuz (trikitrixa, Larrain dantza, txalaparta, ...) eta ohitura zaharrak berrituz, hala nola Asentzio eguneko festa eta Gabonetako Olentzeroa. Euskararekin lotutako jaietan parte hartzeko antolatzen dituzten autobus eta txangoek aukera ezin hobea eskaintzen dute festa giroan eguna pasatzeko, Herri Urrats, Egunkari Eguna, Nafarroan Oinez eta era honetako jaiak euskara suspertzeko oso baliagarriak baitira.

Gazteek herriari begira egiten duten lana kontutan hartuz udalaren jokaera ez zait oso bidezkoa iruditzen, batez ere, aldizkariari dagokionez, herrian izan duen harrera positiboa ikusita, beronek laguntza ekonomikoa eta materiala merezi duela uste baitut. Lerro hauen bidez nire gonbitea luzatu nahi diot udalari bere jarrera itxia alda dezan, eta Elgetako etorkizuna den gazteriarik baldintzarik gabeko laguntza eskain diezaion.

Gaia aldatuz, azkenaldi honetan Goikokaleak izan duen aldaketa aipatu nahi nuke. Postigoko etxe berriak alde batetik, eta hotela bestetik, Martintxo zela eta sasoi batean Goikokalean zegoen bizitasun edo giroa pixkat berreskuratu duela esango nuke. Aurtengo udan, aspaldian ez bezala, Goikokaleko espuela etxe aurrean egiteko aukera euki dugu.

Azkenik, Bizkaiari bizi izan arren barruan Elgeta daramadala esanez amaituko dut gaurkoa.

Begoña Izagirre



Benetan, munduko politena

Bizitzaren arlo gehienetan, denetan ez esatearren, konparaketan oinarritu behar izaten gara. Benetan zaila suertatzen zaigu gauzak berez baloratzea eta erreferentzietara jo behar izaten dugu: aldamenekoa baino azkarragoa, goikoa baino altuagoa edo behekoa baino indartsuagoa. Halaber gizakiok gure burua kokatu nahi izaten dugu, zernolako aukerak dauzkagun jakiteko edo gure trebeziak ezagutzeko (nire ustez denok dugu trebezia bereziren bat) edo zertan ez dugun inoiz gauza haundirik lortuko jakiteko; eta horretarako ere konparaketak beharrezkoak dira.

Dirudienez, beharrezkoak dira.

Zer dakar konparaketa sistema honetan bizi izateak? Konpetitibitatea, gehiago nahi izatea, eta honi, gauza guztiei bezala, neurria hartu behar zaio.

Lehian bizi izatera ohitzen gaituzte eskolan, unibertsitatera joateko orduan edo lana aurkitzerakoan nahikoa borrokatu behar izaten dugu.


Hau dena esan ostean ezin da ukatu konparaketek paper garrantzitsua dutela gure bizitzan, baina arlo guztietara zabaldu behar al ditugu? Ez.

Pentsa nola biziko ginatkeen gure etxea Boyer jaunaren etxearekin konparatzen arituz gero edo Top model bat gure senar-emaztearekin konparatuz, edo gure kontu korrantea Migel Indurainek duenarekin konparatuz gero. Bekaizkeriak edo inbidia jola bukatuko genuke.

Neurririk hartzen ez badiogu, akabo. Zorigaitzeko gizakiak izango gara; denbora gutxiago galdu behar dugu aldamenekoak dituen gauzen inbidiaz eta gehiago daukaguna dastatzen, disfrutatzen; eta honekin ez dut esan nahi ez dugula ametsetan egin beharrik, egin egin behar da, baina ez egunak dituen hogeita lau orduetan.

Iñaki Ugarteburu

KOMIKIA



HEZKUNTZAKO PLAN BERRIAK, HAURRAK KANPORA ATERA DITZAKE

LOGSE hezkuntzako proiektu berriaren aplikazioak, eragina izango du datorren urtetik aurrera Elgetako haurren artean ere.

Plan honen arabera, derrigorrezko hezkuntza 16 urteraino luzatuko da. Lehen, 8. O.H.Orekin(14 urterekin) bukatzen zen Elgetan, baina datorren urtetik aurrera eta legeak horrela agintzen duelako, 12-16 urte bitarteko hezkuntza, beste nonbaiten egiten hasi beharko lukete.

Hezkuntza sailak ez badu oraindik ere mapa eskolarra argitaratu, gurasoen ustetan, Elgetako haurrak Bergara jo beharko lukete, 7. mailatik aurrera.

Plan berriarekin, bailara bakoitzean, guraso, irakasle, udale-

txe... artean, kontseilu bat eratuko da, herri bakoitzak izan ditzakeen arazoak konpontzeko asmoz. Hala ere, kontseilu honek ezingo ditu erabakiak hartu, kontsultako organu batek bezala funtzionatuko du. Elgetak ere ordezkari bat izango du bertan.

Gurasoek egoera ezagutuz, eta Elgeta bezalako herri txiki batzutako ordezkariak kontsultatu ondoren, 14 urte bitartean Elgetan egoteko bidea aztertzen ari dira. Komisio horretan hitz egindakoa- ren arauera, badirudi, urte batzutan zehar Elgetan jarraitzeko aukera izango dutela. Erabaki hau ez litzateke betirako aplikatuko; urte ez zehaztu baten ondoren, 7. maila kanpoan egitera behartuta egongo baitira.

Hala ere, gurasoen esane-

tan, denak usteak eta susmoak baino ez dira. Mapa eskolarra ateratzen ez duten bitartean, ezingo dute inongo erabakirik hartu. Abendurako denak martxan egon beharko luke eta hilabete gelditzen den honetan, ez dute inongo ziurtasunik haurren geroa zein izango den jakitzeko.

Elgetan moduan, beste zenbait herri ere arazo berdinari aurre egin behar diote, hala nola, An-tzuola, Plazentzia, Angiozar... Herri eta auzo hauetan ere, 8. mailararte, daudenean mantentzea pentsatu dute.

12 urte betzeaz bat Elgetatik irten beharrak makina bat buruhauste ekarriko dizkie Elgetako haur zein gurasoei. Alde batetik, ez dakite zein herri izango den Deba bailaran izan beharko badu ere. Dena den, seguruenen edo behintzat horrela komentatzen zuen guraso elkarteko ordezkariak eta gurasoak izan zuten bileran, Bergarara jeistea izango litzateke posibilitate egokiena edukiko lukenean irtenbidea. Bestalde, beste herri batera jeitsi beharrak beste hainbat arazo dakartza berarekin, hala nola, haurrak izango lituzketen ordu libreak (bazkari orduen tartetan umeak eskolatik kanpo baitaude), ikastorduak intentsiboak izatea, duten adinarekin autobusarekin gora eta behera ibili beharra, kanpoan bazkaltzea, herriarekin kontaktua galtzen da...



Haur hauetatik sei dira etorkizuna oso garbi ez dutenak.

OSTATU
DATATXER

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta

ER
HARATEGIA
ASTI

San Roke 6
Tel: 768168.



KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

HIRU ELGETAR BAQUE TORNEOAREN FINALERDIETAN

Eñaut Aranzeta, David Peñalber eta Xabier Ubera, "Baqué" torneoaren finalerdietarako sailkatu dira. Xabierrek eta Eñautek erraz gainditu zituzten beraien kanporaketak, Davidek berriz, sorte hobea izan zuen oraindik, bere aurkakoa ez baitzen aurkeztu.

Hurrengo kanporaketan Peñalber eta Aranzetak bata bestea-

ren aurka jokatuko dute; Xabierrek aldiz, Laskurainen (Soraluze) aurka jokatuko du. Finalera heltzen diren biek, beste bailara batzuetan finalistak izan direnen aurka jokatuko dute.

Bestalde aipatzekoa da oraintsu hasi den Diario Vasco txapelketa Ozkarbi elkarteak antolatua dela, Euskal Telebista eta aipatu dugun egunkaria-ekin batera. Binakako txapelketa honetan Euskal Herriko afizionatu onenek hartzen dute parte eta irabaziz gero profesionaletara pasatzeko aukerak handiagoak izaten dira. Txapelketa honetan, Aranzetak (jubniletan) parte hartuko du eta Ubera I.a (nagusietan) suplente moduan egongo da.



Urretabizkaia eta Olaizolak DV txapelketan parte hartuko dute.

MANKOMUNITATEAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK ELGETARRENTZAT

Deba Garaiko mankomunitateak bi ikastaro eta olinpiada bat antolatu ditu.

Azaroan eta abenduan zehar, piragüismoa eta aerobika. Lehenengoa Bergaran egingo da eta baldintza batzukin: 17 urte edukitzea, kirol honetan federatua izatea eta igeriketa froga gainditzea. Tituloa emango da amaieran. Ikastaro hau 15.000 pta kostako da.

Aerobika, azaroan zehar izango da Arrasaten; ur aerobika eta fitnessa ere aztertuko dira. Ika-

taro honetan parte hartu nahi izanez gero 3.000pta ordaindu beharko dituzu.

Olinpiadak

Mankomunitate mailan jokatuko dira, abenduaren 26tik 29ra. Elgetatik talde batek joateko aukera izango du. Baldintzak: 12 jokalaria gehienez eta 8 gutxienez izatea. Futbito, saskibalo, eskubalo, pala eta igeriketako frogak daude. Taldeak 3.000pta ordaindu beharko ditu izena ematean.

Saria: kirol materiala eta bidaia.

Edurne Arizmendiarriz.

Hilaren 27an egin zituen Edurnek bere azken botuak. Oropesako (Toledo) "Fraternidad Reparadora" izeneko monjen artean. Berarekin batera beste 10 neskak egin zituzten botuak.

1977an sortu eta lau monja baino ez ziren egon 1984 artean. Hortik aurrera, bokazio mailan igoera nabaria jasan dute, 4 izartetik 69 izatera pasa baitira. Harrigarriena adina da, 25-26 urte artean baitago. 1984an onartu zen beraien osaketa eta konstituzioa Estatu mailan eta 1992an Erroman.

Orohar, monja gazte hauen lana eta Edurne berarena, beraien laguntza eskatzen duten parrokiatan lan egitea da. Urte batzuz egoten dira, eta binaka joaten dira Estatu guztian zehar barreiatuz, Galiziatik, Almeriara bitartean dauden probintzietara.

Gogor ari da Edurne lanean eta estima handia diote; pertsonalitate handia omen du eta karakterra ere bai. Honela bada gustora dago eta bizitza gogorra badute ere, aukera horrekin pozik zegoela adierazi zigun.

Menopausia Topaketak.

Menopausiari buruzko topaketa egingo da Elgetan 45 eta 54 urte bitarteko emakumeei zuzenduta. Bertan, beste gai batzuen artean, ongizate pertsonala garatu ditzaketan esperientziak jorratuko dira. Topaketa, azaroaren 28-30 eta abenduaren 4an izango da, arratsaldeko 4etatik 6etara. Izen ematea udaletxean, azaroaren 17a baino lehen.

GORROTXATEGI

HARATEGIA

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

Kazia kirola dala pentsatzen jatzu?



Ainara Iribar
Ikaslea (16 urte)

Kazia gaizki daon hoby bat dala pentsatzen jata, ez dot uste animalixek kulparik dakenik. Batek ondo pasatzeko ez daka zertan animalixak hil biharrik.



Luis Atorrasagasti
Bihargina (25 urte)

Kazia hoby bat dala pentsatzen dot, denboria pasatzeko hobyxa. Kazia ez jata ez ondo, eta ez gaizki pentsatzen, kazari bakotxak pentsau bihako dau ondo dagon ala ez.



J. Carlos Aranzabal
Bihargina (32 urte)

Bizi guztian ein dot, eta ondo pentsatzen jata. Deporte bat da. Gainera uste dot hiltzen dian txorixak oso gutxi diala, daoze-nekin konparauta.



Rosa Egizabal
Langabetua (25 urte)

Ni ez naiz kaza zalia, baina beste kirol bati bezala errespetau eiñ bihar jako. Ni betidanik hezi naiz kazari munduan, aitta eta kazarixak dialako. Animalixak hiltzia ez jata ondo pentsatzen, baina kirol bat dala pentsatzen dot.



Eguzkine Atorrasagasti
Irakaslea (32 urte)

Neretako ez da kirola, zergatik hainbat ehiztari edozer gauza harra-patzera joaten dia eta, neri behintzat, hori ez jata ondo pentsatzen.



Juan Iribikapos
Jubilatua (65 urte)

Nik neretako de-
portia dala pentsatzen juat. Oso ondo pentsatzen jatak, nahiz eta kazarixak txori asko hil.



GRONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

VIVO
JANARI DENDA

M^a JESUS
ARRAZOLA

Tel: 76 81 31

Eibar:**Literatura astea:**

Azaroaren 20an, Abelin Linazisororen (Goenkaleko Xatur) "Axun" aurkeztuko da.

Azaroaren 21ean, Andu Lertxundiren "Otto Pette".

Azaroaren 22an, "Tetris" Luis Fernandezena.

Azaroaren 23an, Arantza Iturbek idatzitako "Lehenago zen berandu".

Azaroaren 24an, Koldo Amestoi ipuin kontalariak, haurntzako "Elina eta lamiña" ipuina kontatuko du.

Aurkezpen guztiak, Eibarko udal-etxean izango dira.


**JABIER BOLINAGA
ELEKTRIZISTA**

- Noiz hasi hintzan lan hometan? Oñ dala urte pila bat, 19 urtekin.

- Gustora habil biharrian? Bai, beste gauzarik

ez jakixat eitten eta.

- Txikitxan zer izango hintzan oportunitadiaz izan ezker? Futbolista.

- Nondik ibiltzen haiz biharrian? Inguru guztian.

- Zer da hire biharrian gustukoena? Eitten doten biharra ondo amaitzia, gustora gelditzia.

- Despiastaua haiz? Sierokua.

- Kalanbrazorik eta? Pila batian.

- Badaukak hobyrik? Bai. Zein? Futbola eta juergia, baiña juergia gehixau.

- Zein kirol gustatzen jata gehixen? Futbola.

- Reala ala Athletic-a? Reala gehixau, baiña oñ momentuan dudan.

- Zenbat pisatzen dok? 78 kilo.

- Zer daukak poltsikuan? Ezebez.

- Ze kotxeekin geratuko hintzan Mercedesakin ala biharrekuakin? Bixekin.

- Bizarra mozteko asmorik? Ez.

- Badaukak pasientziarik? Ez, bapez.

- Gustoko musikia? Rokerua.

- Porruak ala hamburgesia? Batabez.

- Gantzontzillo zurixak ala dibujuekin? Dibujuekin.

- Basarrixa ala kalia? Bixetatik apur bat.

- Zer pentsatzen jatak intsumisiñua? Gaur egun derrigorrezko gauzia.

- Amaitzeko, hire gustoko bertsolari bat? Mañukorta.

Horroroskopoa

♈ Aries: Bat, bi, hiru, lau... zenbat buelta armaixura betiko erropia jazteko?

♉ Taurus: Horrek dia begixak, mozkortuta, lo faltia ete? Bakotxak jakingo dau.

♊ Geminis: Erretxuan txarto urtetzen dozuela? Zeinentako esan bihar.

♋ Cancer: Oñgo martxan errekorren billa zoiatzela... zer errekor klase?

♌ Leo: Amak eiñdako modukuak izan, eta ez hasi inor imitatzen.

♍ Virgo: Bizitzan edozein papel betetzeko gauza zarié, animo!

♎ Libra: Erregalu onak euki dozuez merezi dozuezelako, zorionak!

♏ Escorpio: Suba-biboren itxuria dakazue, beti ingurukoa ziritkatzen.

♐ Sagitarius: Aprobe-txau azken bidaiak hondartzara, hemendik aurrera ez dozue holako egualdirik eukiko eta.

♑ Capricornius: Kontu euki zuen hurrengo bidaietan, ezebez ez pasatzeke.

♒ Acuaris: Kontuz kalian dabizen tibu-roiekin, itsasokuak baino peligrusuagoak dira eta.

♓ Piscis: Zure uliak sasixak emoten dabe noizian behin ileapainditik pasatu.

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

M^a Karmen Lenzeria

Lenzeria eta
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.
Tel: 78 90 40

POTTOKA: "BESTE ARTZAIEK ALFER HUTSA NAIZELA ESATEN DIDATE"

Badirudi Euskal musika krisian dagoela, Elgetarrok hori ikusteko aukera izan genuen EGak antolatutako kontzertuan. Nahiz eta talde bikainak izan jende gutxi ekarri zuten gure herrira. Denen artean bat aukeratu dugu gure elkarrizketa egiteko. Bera ez da krisiarekin atzera gelditzen, eta gai da bera bakarrik taula gainera igo eta bere emanaldia eskaintzeko. Artzantzan lan egiten duen Rockero honek diska bakarra kaleratu du "La rivoluzione della tradizione". Bertan "Nekazaritza S.O.S" bere abestirik famatuena dago. Izenburu biek argi uzten dute Pottokaren nondik norakoa.

- Artzai izanda nola sartu zinen mundu honetan?

- Artzai izatea baino gehiago gustatzen zait mundu hau eta gainera dirua irabazi nahi ezker

ez dut beste aukerarik.

- Zure artzai lagunek zer pentsatzen dute honi buruz?

- Hau tipo alferra! Iruditzen zaie alferkeria bat dela. Egia esan ez da alferkeria, niri gustatzen zait.

- Zenbat ardi dituzu?

- 200 edo. Lanerako soberan baina diru gutxi ematen du.

- Zein da Euskal Herriko musika-ren egoera?

- Interesa galtzen ari da jendea kontzertuen aurrean. Nahia-go dute telebista, bideoa eta opor-rak izan. Hori iruditzen zait behintzat. Alemanian eta entzun dudanez jendea ez da gauzez kalera ateratzen. Norbere lana, etxea... eta kitto.

- Zein da zure gustoko musika?

- Mexiko, Colombia, Afrika,

Irlandakoa... denetatik entzuten dut.

- Zein talde edo solista dituzu gogokoen?

- Bittor Aiape, bera ere nafarra delako. Ez, gustoko dut benetan. Gainontzean Tapia eta Leturiaren azken diska...

- Iparraldeko taldeen artean zein duzu gogokoen?

- Ez ditut asko kontrolatzen, zuentzat bezala hura niretzat ere muga dago.

- Nolako jende mota joaten da zure kontzertuetara?

- Normalean euskaldun girokoa; adinez jende gazteak nahiago ditu Bizkar Hezurra bezalako taldeak. Guregana denetarik entzun eta aspertu dena hurbiltzen da, Pottok interesgarri bezala ikusten duena.

BIZKAR HEZURRA



Nahiz eta taldea 90. hamarkadan sortutakoa izan, bere partaideak aspalditik dabilta musika munduan. "Triku" abeslaria, Korroskada taldeko abeslaria ere izan zen eta nahiko arrakasta izan zuten beraien garaietan. Mikel Irazoki baxu jolea M-ak taldeko partaide izan zen eta orain Garirekin grabatu du. Kaki Arkarazo Negu

Gorriak eta Xabier Montoia (musikan orain bakarka ari dena eta idazle moduan ere aritzen dena.) taldekide zituela besteak beste. Goar gitarrak jolea, gazte-gaztetatik hasi zen mundu honetan, Cicatriz taldean ibilitakoa da eta beste hainbat gauzatan dabilena orain ere.

Beraz, horrelako esperientzia eta kalitatekin, Elgetan erakutsi

zuten bezala, lehen mailako taldea osatzen dute.

Orain arte bi diska kaleratu dituzte, "Informazio pozoiindua" (1993) eta "Beldurraren Kultura" (1995). Zuzeneko emanaldietan erakusten duten indarra, urte guzti hauetan ikasitakoak zerbaiterako balio izan duenaren erakusle garbia da, ikusteko aukera izan genuen bezala.



Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Salbador 12 Behea
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN



Galdaragintza arina
Hoditeria
Errementaritza
Soldadura homologatuak

Antonio Rodrigues Da Cruz

POL. INDUSTRIAL BERRIONDOKUA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

- Orain artean diska bat; ba al duzu beste proiekturik?

- Proiektua bai, baina dirua? Diru falta dugu, eta ez badugu saltzen 3000 kopia edo, diska etxeak ez gaitu grabatzera deituko.

- Zenbat diska saldu dituzue azken diska honekin?

- Milaren bat; ez du oso ondo funtzionatu. Merkatu itxia dugu.

- Bakardade haundia bizi al duzue artzainok?

- Bai. Fabrika baten sarre-

ran badituk guardak, gero lagunak eta solasean ari zaitezke. Baina nik goizeko zazpiretatik hasita, goiza, eguna edo aste bat pasatzen dut ardiekin bakarrik. Bizimodu gogorra da.

Gaur egungo gizarte kontsumistan, artzantza zerbait klasiko bezala gelditu da, "tipo hori piratua dago hor bera bakarrik". Baina artzaia ez da horrelakoa, ez dago mendian goian bera bakarrik, gero jendearekin egoten da, kafe bat hartu, tabernan hitzegin...

- Non gustatzen zaizu gehiago jotzea, leku handietan (frontoiak ..) edo leku txikietan (tabernak ..)?

- Sei urte daramazkit mundu honetan eta dagoeneko berdin zait leku handietan edo txikietan jotzea. Berdin da hamar, ehunbostehun edo mila pertsona egotea.

- Baztanen intsumisio mugimendua nahiko han-

dia da, nola ikusten duzue zuk mugimendu hau kontutan hartuta Baztanen herriak nahiko sakabarnatuta eta txikiak direla?

- Azkenaldi honetan nahiko gauza gogorak gertatu dira; orain arte soldaduzka egitea arrunt zen, gizarte klasikoa baita baztandarra. Herri txiki asko egoteak gehiago ostopatzen du mugimendua. Imagina ezazu, hirurehun biztanle eta bat intsumitua, begi guztiak izango ditu gainean.



Pantxok, musikaz gain animaliak ere gogoko ditu.

TAPIA ETA LETURIA BAND

Tapia eta Leturiak beraien lehenengo pausoak trikiti munduan eman zituzten eta guztiz famatuak egin ziren. Trikitixan eragin handia izan dute bi gizon hauek, baina ez dira horrekin bakarrik konformatu. Beste pauso bat eman dute. Lehenago ere trikitixa eta panderoaz gain beste musika tresna batzuk erabil-tzen zituzten beraien diska eta emanaldietan, baina oraingoan taldea osatu dute eta beste instrumentuek garrantzi handia hartu dute Tapia eta Leturia Band bezala atera duten diskoan ikusten den bezala. Trikitixa alde batera utzi gabe beste musika estilo batzuk jorratu dituzte.

Tapia eta Leturiaz gain musiko trebeak osatzen dute taldea, eta gainera partehartze handia dute. Mikel Artieda izan da musika egin duena diskoan. Batiz, gitarra jolea ere ezaguna da Euskal musika munduan (Errobi), abesti batzutan abestu egiten du. Kontzertuko hainbat tartetan, gitarra, baxua eta bateria bakarrik agertzen dira eta trikitixa eta panderoak atseden pixkat hartzen dute.

Zuzenean, musikaz gain espektakulo pixkat ere jartzen dute Tapiak eta Leturiak gehienbat, eta hori eskertzekoa da ikuslearen aldetik. Giro aparta sortzen duen taldea osatzen dute denen artean. Elgetan hori erakutsi zuten.



I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

P
A
T
X
I

T
A
B
E
R
N
A

Salvador 3
Tel: 768093

Fernando
Ojanguren

M^o Jesus
Mujika

ZEINTZU DIRA ELGETAKO NESKA MUTIKOEK, BERAIEEN ADINEKOENTZAT IKUSTEN DITUZTEN BEHARRAK?

6,7eta 8. mailako haurren iritziak jaso ditugu inkesta txiki hau osatzeko. Ondorio nagusia, asteburuetan eta uda aldean, Elgetako haurrak aspertu egiten direla da.

Piszina eta zine bat eska-

tzen dute 22 haur hauek. Gainera etxe eta fabrika asko eraikitzen ikusten dituzten bitartean, beraien aisialdirako denboran aspertu egiten dira, non egon eta zerekin jolastu ez dutelako. Bizikletan eta patinetean kotxe artean ibili behar

dute, kiroldegia txikia gelditzen da asteburuetan eta zibururik ez dute egoera onean; gainera daudenak ez omen daude egoera onean.

Hementxe dituzue beraien eskaera batzuk. Askok edo gutxi diren norberak ikus dezala.

HERRIAN FALTA DENA

Nire ustez, herrian falta dena piszina eder bat egitea da. Elgetan ez dugunez, beste herri batzutarara joaten gara. Gainera udaran gurasoek eramaten ez bazaituzte, autobus ordutegia ez da etortzen batzuk gura genukeen ordutegiarekin. Gehienetan goizegi iristen dira.

Ume txikientzako parke edo jolasleku polit bat ipiniko nuke, orain ez dagoelako dibertsiorik beraiantzat. Ez daude jolas asko beraiantzat.

Zine bat ere egon beharko luke. Nagusi eta haurrentzat ondo legoke, jendea bestela asteburutan eta neguan aspertu egiten delako.

Jaietarako aterpe bat. Euria egiten duenez jaietan inon sartzetik ez dago, edo ekintzak estalitako tokiren batean ipintzea. Gainera, ondo pasatzeko ekintza gehigo nahi ditugu gure adineko neska-mutikoentzat.

Etxe gehiago ez egitea herrian ere ez legoke gaizki, bestela hiri haundi baten antza hartuko du eta nik ez dut horrelakorik nahi.

Ariane.



Udalekutan bezain ondo pasatzea nahi dituzte asteburu eta udarako egun eguzkitsuak piszinaan edo zineman. Herriko etxeentzat tokia egiten ari direla ikusten dute eta beraiantzat jokuetarako toki polit bat nahiko lukete.

ELGETAN FALTA DENA

Kaixo:

Beno nik nire ustez Elgetan falta zaiguna esango dut eta ahal bada inor mindu gabe.

1. Elgetak behar duena igerileku bat da. Udan bero handia egiten du eta gainera, eskolako haurrak igerian ikasten daudenean Bergarara jo behar izaten dute.

2. Nik uste dut, pelikula-zaleak ere egongo direla gure artean, beraz zine bat edo egitea komeniko litzateke.

3. Ikastolan ere zerbait falta dugula uste dut eta gauza hori gordeta dituzten porteriak ipintzea da, zeren bestela jertsea edo amantala ipini behar dugu porteria bezala.

4. Bi astetan behin autobus bat jartzea Anoeta edo San Mamesera.

Beno hau dena asko eskatzea dela badakit, baina Elgetarro entzutea ondo dagoela uste dut eta denok saiatuz lortu daitekeela.

Aritz Makarro.

ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK

Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta



IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828
Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3

DENBORAPASA

- Eva:** "Etxe gehiago ez dut nahi, hiri baten antza hartuko du bestela".
- Ibai:** "Bizikletan ibiltzeko tokiak eta eskola aurrean aparkalekuak bizikletak uzteko".
- Txomin:** "Autobia eta gasolindegia ez eta patinetean ibiltzeko toki bat".
- Jessica:** "Kirol ezberdinentzako guneak, futbolaz gain beste kirol batzuk baitaude".
- Iratxe:** "Kabina telefoniko gehiago".
- Alain:** "Futbitoan iluntzean jokaterik ez dagoenez argi batzuk komeniko litzateke ipintzea".
- Estibalitz:** "Zahar egoitza eta barranderoarentzat makina, ondo garbitu eta ez nekatzeko".
- Narora:** "Kontenedoreak, zabor, paper eta pilentzako goiko kalean".
- Itxaro:** "Autobus gehiago eta eskolako sarreran aterpe bat, bustita amaitzen dugulako sarritan".
- Oihana:** "Aparkalekuak kotxeentzat. Jaietan eta, norbere garage aurrean uzten bait dute kotxea bestela".
- Mikel:** "Bolatoki atzeko zabortegia itxi eta sasiak kendu; baloiak bilatzea ezinezkoa delako".




6 ezberdintasunak

Bi argazki hauek, berdinak diruditen arren badute ezberdintasunik.

Ziur segituan topatuko dituzula.

Animo!!!!!!!!!!!!



LEHIAKETA

Alboan irudia nola moldatu dugun ikusi daiteke. Erreza ezta? Mendi puntaraino joan eta "tramankulua" lehiaketarako modukoa zela pentsatu genuen. Ziur zuetako askok itxurosoago ezagutu duzuela leku hau.

Azkonabitxan dagoen ertzainen antena dela erraz asmatu duzue, sekula baino karta gehiago jaso baititugu. Geaxi Ezpeletak erantzun zuzena bidali duenez. Berak jasoko du Elgetako Gazte Asanbladaren kamiseta.

Hilebete honetan ere ez da pertsonaia baten izena eskatzen dizueguna. Zer den eta non dagoen asmatzea nahikoa izango da saria eskuratzeko.

Oraingoan ere samurra ezta?

Idatzi *Goibekokale*ra. Azkar! Kamiseta gutxi batzuk geratzen zaizkigu banatzeko. Moztu beheko zatia eta bidali. Zuen zain gaude. Animo!



Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

SAKIBALOIA: AURTEN TALDE BAT BAKARRIK

Aurten, Elgetak talde bat besterik ez du izango Eibar-ko saskibaloia txapelketan. Aurreko urtean partiduetara joateko jende faltak eragindu bi taldeen elkartzeara. Armaixoko txapelketan izan zuen emaitza bikaina kontutan izanik (txapelkunak izan ziren aurreko urtean) elkartzeara erabaki dute.

Dagoeneko hiru ihardunal-

di jokatu dira eta aurten ere arazo ezberdinak direla medio jendea elkartzeko arazo handiak izan dira. Hala nola, txapelketako LEHEN PARTIDURA lau jokalaririk bakarrik joan ziren. Hala eta guztiz ere, orain arte jokaturako partidu guztiak irabaztea lortu dute (arazo askorekin) eta txapelketa irabazteko faborito nagusien artean aurkitzen dira.

PELOTA: JAIALDI BEREZIA ELGETAN.

Hil honen hasieran Nafarroan ospatu ziren frontoi motzeko mundu txapelketara etorri ziren mexikarrak espektakulu ederra eskaini ziguten, Ozkarbik antolatutako jaialdian.

Lehen partidua Mexikoko talde onenak. Ubera II eta Elorriagaren aurka jokatu zuten. Emaitza gutxienezkoa bada ere, mexikarrak

22 eta 20ko emaitzaz nagusitu ziren. Bigarren partiduan mexikarren bigarren taldeak ezin izan zuen ezer egin Aranzeta eta Barrigonen aurka (22-18). Bukatzeko Antxia abadinotarrak 18 eta 12 irabazi zion Teskalpari. Partidu hauek amaitu ondoren, 130gr-ko pelotekin, exhibizio bikaina eskaini zuten, pilotalekura hurbildu ziren elgetar guztien harridurarako.



Askasibarrek ez du Baquen jarraituko

Denboraldi ona egin arren (laisterketa bat irabazi eta postu onak) eta bere taldekide asko baino hobeto ibili arren Oskar Askasibarrek ez du Cafes Baque taldean jarraituko. Badirudi, Cafes Baqueko zuzendariak kirol arrazoiak kontutan eduki beharrean, kirolaz kanpotikoak izan dituztela kontutan. Dena den, Oskarrek txirrindularitzan jarraituko du datorren denboraldian eskaintza ugari jaso baititu.

"Zabaleta" bigarren Euskal Herriko bolo txapelketan

Ihardunaldi bat besterik falta ez denean, Sebastian Zabaletak bigarren postuari eusten dio Euskal Herriko bolo txapelketan. Txapelketa hau, lau ihardunaldik osatzen dute (2 Gipuzkoan eta 2 Bizkaian) horietatik hiru jokatu dira. Ihardunaldi erabakiorra Eibarraren jokatu da, bertan, Sebastianek bigarren postua mantentzen saiatuko dela; lehen postua lortzea ezinezkoa baita dagoeneko.

Mankomunitateko kirol txapelketa jokatu behar da

Mankomunitateak antolatuta kirol txapelketa berezia antolatu behar da. Orain arte gaztetxoan eta 3. adinekoen olinpiadak antolatu izan dira eta orain adin guztiak hartuko dituen txapelketa bat jokatu da. Txapelketa honek lau froga izango ditu. Saskibaloia, futbitoia, eskubaloia eta igeriketa. Herriaren biztanle kopuruaren arabera hainbat talde egiteko aukera izango da. Elgetak talde bat osatu dezake.

BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

ALDI DENDA

(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.



3. adinekoak astero biltzen dira kirola egiteko.

3. ADINEKOAK SASOIAN DAUDE

Dagoeneko zazpigarren urtez egiten ari den ekintza honek, arrakasta izugarria lortu du 3. adinekoen artean. Ekimen honek ez du beste adin batzuetan izan dezakeen helburu bera. Urte guzti hauetan irakasle izan duten Joserrak esan digunez, "helburu nagusia denok elkartzea da eta bide batez kirol piska bat egitea, hau da gimnasia piska bat".

Orain arte astean birritan elkartzen ziren, baina aurten astelehenetan, eguazten eta eguenetan elkartzen dira. Saio hauetan egiten dituzten ariketak, beste edozein adineko pertsonak egiten dituzten

berbinak dira "saioak normalak izaten dira, beste edozein kirolean bezala hasieran beroketa simple batzuk egiten dituzte eta ondoren baloiak eta beste zenbait instrumentu erabiliz ariketak egiten ditugu, nahiz banaka zein taldeka, adina kontutan izanda. Ekimen hau ez da Elgetan egiten dituzten saioetara mugatzen eta urtean behin, bailarako guztiak elkartzen dira Olinpiada bat egiteko; helburu nagusia elkartzea eta egun alaia igartzea delarik".

Jende askok pentsatu dezakeen alderantziz, ekimen honen ibilbide luzean jubilatuko kopurua

oso gutxi murriztu da. "Hasi ginean 30 pertsona inguru apuntatu ziren, baina lehenengo urten, beraientzat oso gogorra zela ikusirik, batzuk uztea erabaki zuten. Azken urteotan kopurua mantendu egin da eta adibide moduan aurten kurtsoa dugu, 23 jubilatuko eman dute izena eta saio bakoitzera batzuek beste 15 etortzen dira".

Jubilatu eta maixuaren arteko harremana oso ona dela dio Joserrak: "gure artean fenomeno konpontzen gara, noizean behin barre batzuk egin...". Jubilatuek beraiek ere oso pozik daude bai gimnasiarekin eta baita Joserrarekin ere, hark ondo tratatzen omen ditu.

Matenimentua ere bai

Eguazten eta eguenetan 6etatik 8etara, beste gimnasia saio bat egiten da eta bertara adin guztietako jendea joaten da.

Ekintza honen harrera ona da, nahiz eta azken urteotan jeitsiera nabarmena izan duen. Joserrak esan digunez "aurten 20 pertsonak eman dute izena eta ez da kopuru txarra baina bi ordu ditugula kontutan izanik jende gehiago etor zitekeen".

Argi ikusten da Elgetan kirola egitea adin guztietara zabalitzen den gauza dela eta aukera, zein ordutegi zabalarekin.

Aurten zazpi urte bete dituen ekintza honek, arrakasta handia izaten jarraitzen du.

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24
Tel: 76 82 06

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
San Roke 2 .Tel: 768151

Publizitatea

76.81.93.

Deitu goizez.

LEGEZ KANPOKO ZABORTEGIAK ELGETAKO MENDI ETA BIDE ZIDORRETAN

Hilabete haseeran jaso dugu erre-dakzio honetan gure ustetan pozgarria den albiste bat. Mendian eta paseatzen ibili diren elgetarrek atzemango zuten, Intxortan aurkitzen den txabola margotu eta txukun asko ipini dutela; "erruduna" Angiozarko auzokideren bat omen da. Kanpoko eserlekua zein barruko egoitza eraberritu ditu; hau gutxi balitz, ate bat ipini du sarreran. Barruan ohar bat ere irakur daiteke, ormak ez margotzeko eta ingurua garbi mantentzeko eskatuz. Agian eraginik izango du, agian ez dituzte bertara hurbildutakoek beraien sinadurak labanez markatuko, agian erabili eta gero garbitu egingo dute han propio utzitako erratzarekin. Mendizalea denak badaki nola ibili eta badaki nola erabili.

Mendia gustoko duenarentzat, Elgeta atsegina da eta ibilaldi laburrak egiteko ere aukera zabala eskeintzen du. Baina azkenurteotan, lasaitasun eta orekaren mugak hautsi dituengertaera batzuek jaso dira eta aurten okerrerantz bihurtu direnak gainera. Legez kanpoko zaborte-gietaz ari gara.

Erreportai labur hau egin asmoz jendea gehien ibiltzen den inguruetara hurbildu gara. Mendi gainetan paperen bat edo beste bazegoen, mendi magaletan larriagoa da ordea. Jendea ere aurkitu izan dugu Pago Haundi inguruan saku eta makilarekin esku artean, ahalik eta hondakin gehien bildu asmoz. Baina han dauden eserleku, koltxoi, adreilu pilak, komun osoak eta moketa zein gainontzeko zabor eta zikinkeriak eramaterik ez dago poltsa arruntekin.

Burdinuara joateko bide ertzean, oraintxe bota dituzte bi besaulki eta Eibarko bideko albotan, bi zabortegi berri



Berritutako txabola zaindu beharko dugu orain, denon artean.

sortu dira. Egun bateko ibilbideak guzti hau erakutsi zigun eta ziur zuetako askok jakingo duela gehiagoren berri.

Baina bereziki Pago Haundiko kasuaz hitzegin nahi dugu. Jendeak, botatzen ditu latak, aluminio paper zatiak eta haundiagoetara jo ezker garbigailu eta telebistaren bat edo beste. Baina Eguarbitza aldera piltzen diren hondakinak ezin eraman daitezke autoz. Argi eta garbi atzeman daitezke nondik datozen adreilu, plastikozko saku, komun sukaldeetako materialak etab. Etxeetan egiten ari diren lanen ondorioak dira. Margotzen eta eraikitzen ari diren etxe hoi hondakinen zati bat han dago. Gainera pinadi baten erdian, belarra bezala zabaldurik moketa zatiak daude.

Elgetan legezkoa den zabortegi bat dago Olein. Beraz

gainontzean dauden guztiak legez ordaindu nahi ez dutenak sortzen dituzte. Hondakinak botatzea kostu bat suposatzen dio eraikitzen edo konponketa lanean ari den enpresari; beraz bide errazena aukeratzen dute, mendiko pistetan zehar botatzearena. Hau txarra bada, ohitura bilakatzea txarragoa da; puntu hoiereferentzia bihurtzen bait dira zaborrak horrela bota nahi dituen edozeinentzat.

Elgetarrok ari gara pixkanaka gure etxeetako zaborrak desberdintzen: papera alde batera, beira bestera, laister plastikoen ontziak ipiniko dituzte eta horrela denok kultura berri batetan ari gara sartzen. Mendia ere gurea da eta zaintzea tokatzen zaigu, neurriak hartu beharko dira, eta "kontzientzia" piztu ez zaienei legeak aplikatu.

HAIZEA

TABERNA

Salbador 5 Tel: 768256 ELGETA



METALEN SALEROSKETA

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7
Telf-Faxa: 768064 Elgeta



1960. urtean atera zieten mutiko hauei argazki hau. Lehengo espaloian daude. Denak irripartsu eta formal argazkilariari begira. 23 dira kurtso horretan zeuden ikasleak eta irakaslea dute lagun.

Behean dituzue talde hau osatzen dutenen izen eta abizenak. Betzuk berdin jarraitzen duten arren, batek baino gehiago izango du sorpresaren bat edo beste, urteak alferrik pasatzen ez direla ikusita.

Goian ezkerretik hasita: **Juan Luis Arizmendiarieta, Juan Inaxio Basauri, Pedro Crespo eta Migel Angel Alberdi.**

Erdian ezkerretik hasita: **Juan Mari Alberdi, Anjel Agirreazaldegia, Jose Ramon Arrazola, Jabier Elorza, Felix Bolinaga, Jose Luis Gorosabel, Jose Mari Iturriotz, Jose Inaxio Erostarbe, Juan Mari Aranzeta, Juan Ramon Basauri eta Bittor Basauri.**

Behean ezkerretik hasita: **Josean Ojanguren, Jose Mari Olañeta, Alberto Sarasketa, Domingo Askasibar, Juan Luis Alberdi, Alberto Agirreazaldegia, Jose Ramon Aranzabal, Jorge Bolinaga eta Iñaki Etxeberria.**

Olabarria

AUTOBUSAK

San Juan, 18
48230 Elorrio (Bizkaia)

Telefonoak:

908 - 67 52 56 (Eibar)

94 - 623 16 47 (Bulegoa)

94 - 658 21 55 (Etxekoa)

